

HITZARMENA, ELKARREKIN INFORMAZIOA TRUKATZEKO ERAKUNDE HAUEK ARTEAN SINATUA: GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINZTA NAGUSIA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRA, EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA ENPLEGU SAILAREN ETA LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN BITARTEZ.

CONVENIO ENTRE LA TESORERÍA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL Y LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, A TRAVÉS DEL DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO DEL GOBIERNO VASCO Y LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO, SOBRE INTERCAMBIO RECÍPROCO DE INFORMACIÓN.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

REUNIDOS

Alde batetik, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia, erakunde horretako titularra ordezkari duela, hots ANDRÉS HARTO MARTÍNEZ zuzendari nagusia, urtarrilaren 21eko 132/2020 Errege Dekretuaren bidez izendatua (urtarrilaren 22ko BOE), zeinak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.2 artikuluan eta Gizarte Seguratasunaren Diruzaintza Nagusiaren egitura eta eskumenak arautzen dituen ekainaren 20ko 1314/1984 Errege Dekretuaren 1. eta 3. artikuluetan ezarritakoaren arabera baitihardur.

De una parte, la Tesorería General de la Seguridad Social, representada por su titular, el Sr. Director General, D. ANDRÉS HARTO MARTÍNEZ, nombrado mediante Real Decreto 132/2020, de 21 de enero, (BOE de 22 de enero), actuando en virtud de lo establecido en el artículo 48.2 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y artículos 1 y 3 del Real Decreto 1314/1984, de 20 de junio, por el que se regula la estructura y competencias de la Tesorería General de la Seguridad Social.

Eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, IDOIA MENDIA CUEVA andreak ordezkatur, bigarren lehendakariorde eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enpleguko sailburua baita, irailaren 7ko 21/2020 Dekretuaren bidez hala izendatuta (EHAA, irailaren 8koa), eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren presidentea ere baita eta, beraz, erakunde horren izenean eta ordezkari gisa baitihardur, bat etorrita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuen 5. artikuluan ezarritakoarekin (maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartu ziren estatutuak), eta jarduketa honetarako ahalmena eman baitzaio Gobernu Kontseiluak 2021ko apirilaren 20an hartutako erabakiaren bidez.

Y de otra parte, la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, representada por la Vicepresidenta Segunda, Consejera de Trabajo y Empleo del Gobierno Vasco, D^a. IDOIA MENDIA CUEVA, nombrada mediante Decreto 21/2020, de 7 de septiembre (BOPV de 8 de septiembre), y Presidenta de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo actuando en nombre y representación del mismo de conformidad con el artículo 5 de los Estatutos de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, aprobados por Decreto 82/2012, de 22 de mayo y facultada para este acto por Acuerdo de Consejo de Gobierno del 20 de abril de 2021.

Alderdiek hitzarmen zehatz hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa aitortu diote elkarri, eta, ondorioz, honako hau

Las partes se reconocen con capacidad suficiente para suscribir el presente Convenio y a tal efecto

AZALDU DUTE:

EXPONEN

Lehenengoa.–

Primero.–

1) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra Gizarte Segurantzaren zerbitzu komun bat da, nortasun juridiko propioa duena, zeinetan, finantza-

1) La Tesorería General de la Seguridad Social es un Servicio Común de la Seguridad Social con personalidad jurídica propia en el que, por

elkartasunaren eta kutxa bakarraren printzipioak aplikatuz, finantza-baliabide guztiak bateratzen baitira, aurrekontu-operazioen bidez zein aurrekontuz kanpokoen bidez; haren kargu daude funtsak, balioak eta kredituak zaintzea eta arreta orokorrak eta Gizarte Segurantzaren sistemaren betebeharren eskubide eta ordainketak biltzeko zerbitzuari dagozkionak.

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 21.1) artikulua honako hau ezartzen du:

«Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, Gizarte Segurantzaren sistemaren kutxa bakarra den aldetik, Gizarte Segurantzaren baliabideen likidazio-eta bilketa-kudeaketa egingo du, bai eta Gizarte Segurantzaren kuotekin batera biltzen diren kontzeptuen kudeaketa ere, borondatezko aldian nahiz betearazpen-bidean, Estatuaren zuzendaritzapean eta tutoretzapean».

Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren egitura eta eskumenak arautzen dituen ekainaren 20ko 1314/1984 Errege Dekretuak (aurrerantzean, GSDO), 1.1.a) artikuluan, enpresak inskribatzearen eta langileen afiliazio, alta eta baje arloko eskumenak esleitzen ditu; arlo hori enpresak inskribatzeari eta Gizarte Segurantzaren langileen afiliazio, alta eta bajei buruzko Araudi Orokorraren 3. artikuluan arautu zen gero, zeina urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen. Horretarako, Erregelamendu horren 52. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari dagokio langileen erregistro bat atxikitzea Gizarte Segurantzaren Sistemaren Erregimen bakoitzeko dagokion identifikazioarekin, baita onuradunekin eta kotizatu behar duten gainerako pertsonekin ere. Halaber, aipatu 1314/1984 Errege Dekretuaren 1.b) artikulua arabera, arlo hauek kudeatu eta kontrolatzeko eskumenak ere badagozkio: kotizazioa eta Gizarte Segurantzaren finantzaketa-sistemako kuoten eta gainerako baliabideen bilketa. Ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Diru-bilketaren Araudi Orokorraren bidez arautu zen arlo hori gero.

Abenduaren 22ko 2064/1995 Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren beste eskubide batzuen kotizazioari eta likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorraren 3.1) artikulua honako hau xedatzen du:

aplicación de los principios de solidaridad financiera y caja única, se unifican todos los recursos financieros, tanto por operaciones presupuestarias como extrapresupuestarias, teniendo a su cargo la custodia de los fondos, valores y créditos y las atenciones generales y de los servicios de recaudación de derechos y pagos de las obligaciones del sistema de la Seguridad Social.

El artículo 21.1) del Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 8/2015, de 30 de octubre, establece que:

“La Tesorería General de la Seguridad Social, como caja única del sistema de la Seguridad Social, llevará a efecto la gestión liquidatoria y recaudatoria de los recursos de esta, así como de los conceptos de recaudación conjunta con las cuotas de la Seguridad Social, tanto en periodo voluntario como en vía ejecutiva, bajo la dirección y tutela del Estado”.

El Real Decreto 1314/1984, de 20 de junio, por el que se regula la estructura y competencias de la Tesorería General de la Seguridad Social (en adelante TGSS), atribuye en su artículo 1.1.a) las competencias en materia de inscripción de empresas y la afiliación, altas y bajas de los trabajadores, materia regulada posteriormente por el artículo 3 del Reglamento General sobre inscripción de empresas y afiliación, altas y bajas de los trabajadores en la Seguridad Social, aprobado por el Real Decreto 84/1996, de 26 de enero. A tales efectos, en virtud de lo establecido en el artículo 52 del citado Reglamento, corresponde a la TGSS el mantenimiento de un registro de trabajadores con la correspondiente identificación por cada Régimen del Sistema de la Seguridad Social, así como los beneficiarios y demás personas sujetas a la obligación de cotizar. Así mismo el mencionado Real Decreto 1314/1984 atribuye en su artículo 1.b) las competencias en materia de gestión y control de la cotización y de la recaudación de las cuotas y demás recursos de financiación del sistema de la Seguridad Social. Materia regulada posteriormente en el Reglamento General de Recaudación de la Seguridad Social, aprobado por el Real Decreto 1415/2004, de 11 de junio.

El Artículo 3.1) del Reglamento General sobre Cotización y Liquidación de otros Derechos de la Seguridad Social, aprobado por Real Decreto 2064/1995, de 22 de diciembre, determina que:

«Gizarte Segurantzarekiko zorren likidazio-kudeaketa Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren zuzendaritzapean, zaintzapean eta tutoretzapean egingo du Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, hargatik eragotzi gabe legediak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzari esleitutako eskumenak eta Gizarte Segurantzaren Administrazioko edo beste administrazio publiko batzuetako beste organo batzuei berariaz esleitutako eginkizunak.»

2) Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten erakundeen eskumen-esparrua abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartutako Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan ezarrita dago.

Ondorio horietarako, Euskal Autonomia Erkidegoari enpleguaren arloan esleitutako eskumenak Lan eta Enplegu Sailari dagozkio, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Sail honi atxikita dago Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa, zeinak, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruaren barruan eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legearen arabera, enplegu-politika aktiboen bitartekaritza eta betearazpena kudeatzearekin lotutako eginkizunak betetzen baititu, bai eta zuzenbideko prestazio ekonomikoak kudeatzearekin lotutakoak ere, hala nola diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzako prestazio osagarria, arlo hori arautzen duen legerian ezarritako nondik norakoen arabera (18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzekoa, abenduaren 24ko 4/2011 Legeak egindako aldagaketaren ondoren). Gainera, lan-merkatuaren beharrak aztertu eta informatzeko eginkizunak ditu.

Bigarrena.–

1) Administrazio publikoen arteko harremanetan nagusi izan behar duen lankidetz-esparruan, bi aldeetako ordezkariak uste dute beren helburuak betetzeko oso onuragarria izango litzatekeela informazioa trukatzeko eta lankidetzan aritzeko sistema egonkor bat ezartzea, eta, hala badagokio, beren datu-base informatikoetara zuzenean sartzea.

“La gestión liquidatoria de las deudas con la Seguridad Social se efectuará bajo la dirección, vigilancia y tutela del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, por la Tesorería General de la Seguridad Social, sin perjuicio de las competencias atribuidas por la legislación a la Inspección de Trabajo y Seguridad Social y de las funciones atribuidas expresamente a otros órganos de la Administración de la Seguridad Social o de otras Administraciones públicas.”

2) El marco competencial de las Instituciones que integran la Comunidad Autónoma de País Vasco viene establecido en el Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre.

A estos efectos, las competencias atribuidas a la Comunidad Autónoma en materia de empleo corresponden al Departamento de Trabajo y Empleo, según establece el artículo 6 del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos. Adscrito a este departamento se encuentra el organismo autónomo Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, que ostenta dentro del ámbito competencial de Euskadi y en virtud de la Ley 3/2011, de 13 de octubre, sobre Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, las funciones relativas a la gestión de la intermediación y la ejecución de las políticas activas de empleo, así como la gestión de las prestaciones económicas de derecho, como son la renta de garantía de ingresos (RGI) y prestación complementaria de vivienda, en los términos establecidos en la legislación reguladora de esta materia, Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, tras la modificación llevada a cabo por la Ley 4/2011, de 24 de noviembre. Además, tiene atribuidas funciones de prospección e información de las necesidades del mercado de trabajo.

Segundo.–

1) En el marco de colaboración mutua que debe presidir las relaciones entre las Administraciones Públicas, los representantes de ambas partes consideran que sería muy beneficioso para el cumplimiento de sus fines el establecer un sistema estable de intercambio de información y de colaboración que, en su caso, incluso permitirá el acceso directo a sus respectivas bases de datos informáticas.

Hitzarmen honen helburua da jarraipena ematea GSDOK eta garai hartako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak datuak lagatzeko asmoz 2010eko maiatzaren 11n sinatu zuten hitzarmenari, Euskal Autonomia Erkidegoari enplegu-politika aktiboen arloan eskualdatuko zitzaizkion eskumenak behar bezala gauzatzeko laguntza-tresna gisa, hartara bermatzeko jarraipena emango zaiola onartutako programen kudeaketari, ordura arte Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatzen baitzituen programok. Bi aldeentzako emaitza positiboekin amaitu zen kontratu-harremana.

2) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen babespean den informazio-lagapena eta lankidetza da; lege horren 3.1.k) artikulua arabera, kooperazioa, lankidetza eta koordinazioa dira administrazio publikoen arteko harremanak gidatu behar dituzten printzipioak. Gainera, ez da alboratu behar, lege horren 3. artikuluekin bat, administrazio publikoek objektibotasunez zerbitzatzeko dituztela interes orokorrak, eta zerbitzu eraginkorra, sinpletasuna, argitasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna errespetatu beharko dituztela haien jardunean eta harremanetan, eta arrazionalizazio- eta arintasun-printzipioak administrazio-prozeduretan eta kudeaketako jarduera materialetan. Gainera, administrazio publikoek sistemen eta horietako bakoitzerako hartutako soluzioen elkarreragingarritasuna eta segurtasuna bermatzen duten baliabide elektroniko bidez izango dituzte harremanak haien artean, datu pertsonalak babestuko dituzte, eta, ahal dela, zerbitzuak batera emango dizkiete interesdunei.

3) Halaber, eta 40/2015 Legearen 141.1. artikulua c) letrarekin bat, administrazio publikoen lankidetza-egitekoa aplikatuz ondorioztatzen da *«gainerako administrazioei behar duten informazioa eman behar dietela haien eskumenak baliatuz egiten duten jarduerari buruz (...).»*. Eta lege beraren 155.3 artikulua ezartzen du administrazioek behar diren neurriak eta teknologiak hartu behar dituztela beren sareak elkarren artean konektatzeko, eta, era berean, 1. eta 2. paragrafoetan arautzen ditu administrazio publikoen arteko datu-transmisioei buruzko betekizunak.

4) Hitzarmen honen aplikazio-eremuan informazioa hornitzen denean, herritarren ohore-

Este convenio pretende continuar con la relación iniciada entre la TGSS y el entonces Departamento de Empleo y Asuntos Sociales con el convenio suscrito el 11 de mayo de 2010 de cesión de datos, como instrumento de apoyo para el correcto ejercicio de las competencias que iban a ser transferidas a la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de políticas activas de empleo, a fin de garantizar la continuidad en la gestión de los programas asumidos, que hasta entonces realizaba el Servicio Público de Empleo Estatal. Relación contractual que finalizó con resultados positivos para ambas partes.

2) Se trata de una cesión de información y de una colaboración cuyo amparo se encuentra en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, que establece en su artículo 3.1.k) que los principios que deben presidir las relaciones entre las Administraciones Públicas son los de cooperación, colaboración y coordinación. No debe obviarse además que, conforme al artículo 3 de la citada Ley las Administraciones Públicas sirven con objetividad los intereses generales y deberán respetar en su actuación y relaciones los principios de servicio efectivo, simplicidad, claridad y proximidad a los ciudadanos y de racionalización y agilidad en los procedimientos administrativos y de las actividades materiales de gestión. Además, las Administraciones Públicas se relacionarán entre sí a través de medios electrónicos, que aseguren la interoperabilidad y seguridad de los sistemas y soluciones adoptadas por cada una de ellas, garantizarán la protección de los datos de carácter personal, y facilitarán preferentemente la prestación conjunta de servicios a los interesados.

3) Asimismo, y de acuerdo con la letra c) del artículo 141.1 de la Ley 40/2015, en aplicación del deber de colaboración de las Administraciones Públicas se desprende la obligación de *“facilitar a las otras Administraciones la información que precisen sobre la actividad que desarrollen en el ejercicio de sus propias competencias (...)”*. Y para su efectiva aplicación el artículo 155.3 del mismo cuerpo legal impone a las Administraciones la adopción de las medidas necesarias y las tecnologías precisas que posibiliten la interconexión de sus redes, regulando asimismo, en sus apartados 1 y 2 los requisitos relativos a las transmisiones de datos entre Administraciones Públicas.

4) El suministro de información efectuado en el ámbito de aplicación de este convenio deberá

eskubidea eta norberaren eta familiaren intimitatea izateko eskubidea errespetatu behar da, Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua xedatzen duenez, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (2016/679 EB Erregelamendua).

5) Hitzarmen honetan aurreikusitako informazio-hornidurak legitimatzen dituzten oinarri juridikoak hauek dira: lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurtasunaren eta -babesaren esparruko legezko betebeharrak betetzea eta eskubideak baliatzea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (EB) 2016/679 Erregelamenduen 6.1.c) eta 9.2.b) artikuluetan ezarritakoak, hurrenez hurren. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, legezko gaikuntza honako hauetan dago jasota: Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 77.1.d) eta 40.6 artikuluetan, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enpleguaren Legearen testu bateginaren bigarren xedapen gehigarrian eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 24. artikuluan. Hau da, tratatu beharreko datu pertsonalak elkarri lagatzeko legezko gaikuntza dago, eta, beraz, ez da beharrezkoa eragindako pertsonen alde aurreko baimena.

Hitzarmen honen arabera, datuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomotik Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusira helarazteko lege-oinarria Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginaren 40.4 artikuluan dago jasota. Horren arabera, funtzionario publikoak, profesional ofizialak barne, behartuta daude Gizarte Segurantzaren Administrazioarekin lankidetzan aritzera, era guztietako informazioa emateko, tratamendu automatizatuaren xede izan ala ez, baldin eta baliagarria bada Gizarte Segurantzaren baliabideak eta haiek dituzten baterako bilketaren gainerako kontzeptuak biltzeko.

Halaber, lege horren 40.6. artikulua honako hau xedatzen du:

«Gizarte Segurantzaren Administrazioari datu pertsonalak lagatzeko, ez da ukituaren adostasunik behar, lagapen hori egiten denean artikulua honetan ezarritakoa betez edota, oro har, laguntzeko eginbeharra betez, Gizarte

respetar el derecho al honor y a la intimidad personal y familiar de los ciudadanos que prescribe el artículo 18 de la Constitución Española, en los términos de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y del Reglamento General de Protección de Datos (Reglamento UE 2016/679).

5) Las bases jurídicas que legitiman los suministros de información previstos en el presente convenio son el cumplimiento de obligaciones legales y el ejercicio de derechos en el ámbito del Derecho Laboral y de la seguridad y protección social, establecidas, respectivamente, en los artículos 6.1.c) y 9.2.b) del Reglamento General de Protección de Datos, Reglamento (UE) 2016/679. En los términos previstos en el artículo 8 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, la habilitación legal se encuentra en los artículos 77.1.d) y 40.6 del Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social, en la Disposición adicional segunda del Texto Refundido de la Ley de Empleo, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2015, de 23 de octubre y en el artículo 24 de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social. Por tanto, la cesión mutua de datos personales objeto de tratamiento cuenta con habilitación legal y no precisa, por tanto, de previo consentimiento de las personas afectadas.

La base legal para el traslado de datos desde el organismo autónomo Lanbide-Servicio Vasco de Empleo a la Tesorería General de la Seguridad Social, en virtud de este convenio, se encuentra en el artículo 40.4 del Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social, que establece que los funcionarios públicos, incluidos los profesionales oficiales, están obligados a colaborar con la Administración de la Seguridad Social para suministrar toda clase de información, objeto o no de tratamiento automatizado, siempre que sea útil para la recaudación de recursos de Seguridad Social y demás conceptos de recaudación conjunta, de que aquéllos dispongan.

Además, el artículo 40.6 del mismo cuerpo legal dispone que:

“La cesión de aquellos datos de carácter personal que se deba efectuar a la Administración de la Seguridad Social conforme a lo dispuesto en este artículo o, en general, en cumplimiento del deber de colaborar con la Administración de la

Segurantzaren baliabideak eta Gizarte Segurantzaren kuotekin batera bildu beharreko kontzeptuak eraginkortasunez likidatzeko eta biltzeko.

Aurreko lerrokan aipatutakoa betetze aldera, honako hauek behar beste datu, txosten eta aurrekari eman beharko dizkiote Gizarte Segurantzaren Administrazioari, likidazioak egiteko eta dirua biltzeko eginkizunak zuzen bete ditzan: agintariak (edozein dela ere horien izaera); Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organoen titularrak; organismo autonomoak, agentziak eta enpresa-entitate publikoak; ganberak eta korporazioak, elkargoak eta elkarte profesionalak; gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, eta, oro har, funtzio publikoetan lan egiten dutenak edo horiekin elkarlanean aritzen direnak; horretarako, betiere, betebeharrak horiek izaera orokorreko xedapen bidez ezarrita beharko du, edo Gizarte Segurantzaren Administrazioak errekerimendu zehatz bidez hala eskatu beharko du. Era berean, aipatutako administrazioari eta bertako langileei sostengua, laguntza, sorospena eta babesa eman beharko dizkiote, beren eskumenak balia ditzaten.

Artikulu horretan aipatzen den datu-lagapena, ahal dela, bitarteko informatikoen bidez gauzatuko da. Horretarako, Gizarte Segurantzaren Administrazioak bere eskumeneko prozedurak izapidetzeko behar dituen datuak edo informazioa eskatu ahal izango ditu, bere sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez».

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik helaraziko zaion informaziorako legezko gaikuntza enplegu-politika arautzen duen araudian dago, Enpleguaren Legearen testu bateginean, zeina urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen. Araudi horretako bigarren xedapen gehigarrian ezartzen da organismo eta entitate publiko eta pribatu guztiek Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari eta autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoei beren helburuak betetzeari buruz eskatzen dizkieten datu guztiak eman beharko dizkietela,

Seguridad Social para el desempeño de cualquiera de sus funciones, especialmente respecto de la efectiva liquidación, control de la cotización, recaudación de los recursos de la Seguridad Social y de los conceptos de recaudación conjunta con las cuotas de la Seguridad Social, no requerirá el consentimiento del afectado.

A los efectos señalados en el párrafo anterior, así como respecto de la cesión de datos de carácter no personal, las autoridades, cualquiera que sea su naturaleza, los titulares de los órganos del Estado, de las comunidades autónomas y de las entidades locales; los organismos autónomos, las agencias y las entidades públicas empresariales; las autoridades laborales; las cámaras y corporaciones, colegios y asociaciones profesionales; las mutualidades de previsión social; las demás entidades públicas y quienes, en general, ejerzan o colaboren en el ejercicio de funciones públicas, estarán obligados a suministrar a la Administración de la Seguridad Social cuantos datos, informes y antecedentes precise esta para el adecuado ejercicio de cualquiera de las funciones de la Administración de la Seguridad Social, especialmente respecto de sus funciones liquidatorias, de control de la cotización y recaudatorias, mediante disposiciones de carácter general o a través de requerimientos concretos y a prestarle, a ella y a su personal, apoyo, concurso, auxilio y protección para el ejercicio de sus competencias.

La cesión de datos a que se refiere este artículo se instrumentará preferentemente por medios informáticos. A tal efecto la Administración de la Seguridad Social podrá recabar a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas habilitados al efecto, los datos o la información necesaria para la tramitación de los procedimientos que resulten de su competencia”.

Por su parte, la habilitación legal para la información que se prevé trasladar a Lanbide-Servicio Vasco de Empleo desde la Tesorería General de la Seguridad Social, se encuentra en la normativa reguladora de la política de empleo, el texto refundido de la Ley de Empleo, aprobado por el Real Decreto legislativo 3/2015, de 23 de octubre, que establece en su Disposición adicional segunda que todos los organismos y entidades de carácter público y privado estarán obligados a facilitar al Servicio Público de Empleo Estatal y a los Servicios Públicos de Empleo de las comunidades autónomas cuantos datos les sean solicitados en

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa errespetatuta.

Eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioen esparruan, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua gaitzen du, 24. artikuluan, «Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemak laguntzen duten gainerako administrazio publikoei eta erakundeei berrikuspen- eta gainbegiratze-eginkizunak behar bezala betetzeko behar-beharrezkoak diren datuak eta txostenak eskatzeko.»

Hala ere, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak lortutako informazioaren lagapena legez mugatuta dago. Horri dagokionez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 77.1 artikulua printzipio orokor hau ezartzen du: Gizarte Segurantzaren Administrazioak bere eginkizunen bidez lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia osatzen duten erakunde kudeatzaileak, zerbitzu komunak eta organoei agindutako zereginetarako baino ezin izango dira erabili, eta ezin izango zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi. Hala ere, zenbait salbuespen arautzen ditu, eta horien artean honako hau dago:

«d) Beste edozein administrazio publikorekin lankidetzan aritzea funts publikoen konturako laguntzak edo dirulaguntzak — Europar Batasunekoak barne — lortzeko edo jasotzeko iruzurraren aurka borrokatzeko, Gizarte Segurantzaren sistemako araubideetan bateraezinak diren prestazioak lortzeko edo jasotzeko, eta, oro har, Gizarte Segurantzaren Administrazioak lortutako datuak garrantzitsuak diren eta haiei legez edo erregelamenduz esleitzen zaizkien eginkizunak betetzeko.»

6) Erakunde sinatzaileei esleitutako eskumenak eraginkortasunez kudeatu ahal izatea da informazio-trukerako sistema bat ezartzeko arrazoia, hartara informazioaren eskuragarritasuna arintzeko eta egindako kostuak murrizteko. Aipatu sistema hitzarmen honen bidez arautzen da; izan ere, trukea interesdunen edo horien eraginpean daudenen kopuru handi baten datuen gainean egingo da, eta aldizka egiaztatu beharko da, eta, kasu batzuetan, etengabe egiaztatu beharko da. Are gehiago, kasu jakin batzuetan, beharrezkoa izango

relación con el cumplimiento de los fines que les son propios, respetando lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

Y en el ámbito de las prestaciones de renta de garantía de ingresos, la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la garantía de ingresos y para la inclusión social, habilita a Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, en su art. 24, para “recabar del resto de administraciones públicas y entidades que colaboran en el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos e Inclusión Social los datos e informes que resulten estrictamente necesarios para el correcto ejercicio de las funciones de revisión y supervisión.”

Aun así, la cesión de información obtenida por la Tesorería General de la Seguridad Social está legalmente limitada. A este respecto el artículo 77.1 del mencionado Texto Refundido de la ley General de la Seguridad Social, establece el principio general de que los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración de la Seguridad Social en el ejercicio de sus funciones tienen carácter reservado y solo podrán utilizarse para los fines encomendados a las distintas entidades gestoras, servicios comunes y órganos que integran la Administración de la Seguridad Social, sin que puedan ser cedidos o comunicados a terceros. Si bien regula una serie de excepciones entre las que se encuentra:

“d) La colaboración con cualesquiera otras administraciones públicas para la lucha contra el fraude en la obtención o percepción de ayudas o subvenciones a cargo de fondos públicos, incluidos los de la Unión Europea, para la obtención o percepción de prestaciones incompatibles en los distintos regímenes del sistema de la Seguridad Social y, en general, para el ejercicio de las funciones encomendadas legal o reglamentariamente a las mismas para las que los datos obtenidos por la Administración de la Seguridad Social resulten relevantes.”

6) Razones de eficacia en la gestión de las competencias atribuidas a los entes signatarios justifican el establecimiento de un sistema de intercambio de información que permita una agilización en la disposición de la información y una disminución de los costes incurridos. Dicho sistema se regula a través del presente convenio, dado que el intercambio se producirá sobre los datos de un elevado número de interesados o afectados por los mismos y habrá de verificarse de una forma periódica y, en algunos casos, incluso continuada

da informaziorako irispidea kasuan kasuko datu-baseetarako zuzeneko konexioen bidez gauzatzea. Helburu horrekin, indarrean dagoen araudiak ahalbidetzen duen neurrian eta urtarilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuak araututako Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalak (ENI) ezarritako betekizunekin bat etorritik, teknologia modernoek arlo horretan eskaintzen dituzten aukerak baliatzen dira.

7) Aipatutako 3/2018 Lege Organikoaren 28. artikulua arabera, tratamenduaren arduradunek, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 24., 25. eta 32. artikuluetan zerrendatutako elementuak kontuan hartuta, aplikatu behar dituzten neurri tekniko eta antolakuntzakoak zehaztuko dituzte, tratamendua datuen babesari buruzko aipatutako araudiarekin eta aplikatzekoa den sektoreko legeriarekin bat datorrela bermatzeko eta egiaztatzeko. Bereziki, aztertuko dute ea bidezkoa den datuen babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa egitea eta erregelamendu horren IV. kapituluko 3. atalean aipatzen den aurretiko kontsulta egitea. Gainera, Segurtasunaren Eskema Nazionala (ENS) onartzen duen urtarilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan jasotako segurtasun-neurriak aplikatu beharko dira. Errege-dekretu horrek bitarteko elektronikoak erabiltzean aplikatu beharreko segurtasun-politika zehazten du.

8) Gizarte Segurantzaren sistema informatikorako sarbideen kontrolari buruzko 1996ko urtarilaren 17ko Aginduak, 1996ko ekainaren 12ko 2-030 zenbakidun zirkularrekin eta 1999ko irailaren 27ko 2-027 zenbakidun zirkularrekin batera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren fitxategi automatizatuen sarbideen kontrola eta jarraipena arautzen dute.

Hirugarrena.–

Estatistika-ondorioetarako datu-trukea, honako araudi honek babesten du:

1) Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 25. artikulua, estatistika eginkizun publikoaren esparruan egindako datuen tratamenduari buruzkoa.

2) (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1 e) artikulua, informazioa behar duen estatistika hori Europar Batasuneko zuzenbideko arauak horrela

en el tiempo, siendo preciso establecer en determinados supuestos que el acceso a la información se produzca a través de las conexiones directas a las bases de datos correspondientes. Con este objetivo, se aprovechan, en la medida en que lo permite la normativa vigente y de acuerdo con los requisitos establecidos por el Esquema Nacional de Interoperabilidad (ENI), regulado por el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, las posibilidades que en este campo ofrecen las más modernas tecnologías.

7) Conforme al artículo 28 de la Ley Orgánica 3/2018 citada, los responsables de tratamiento, teniendo en cuenta los elementos enumerados en los artículos 24, 25 y 32 del Reglamento (UE) 2016/679, determinarán las medidas técnicas y organizativas apropiadas que deben aplicar a fin de garantizar y acreditar que el tratamiento es conforme con la citada normativa sobre protección de datos y la legislación sectorial aplicable. En particular valorarán si procede la realización de la evaluación de impacto en la protección de datos y la consulta previa a que se refiere la Sección 3 del Capítulo IV del citado reglamento. Además, se deberán aplicar las medidas de seguridad recogidas por el Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, por el que se aprueba el Esquema Nacional de Seguridad (ENS), el cual determina la política de seguridad que se ha de aplicar en la utilización de los medios electrónicos.

8) La Orden de 17 de enero de 1996 sobre control de accesos al sistema informático de la Seguridad Social, junto con las Circulares núm. 2-030, de 12 de junio de 1996, y 2-027 de 27 de septiembre de 1999, regulan el control y seguimiento de accesos a los ficheros automatizados de la Tesorería General de la Seguridad Social.

Tercero.–

En cuanto al intercambio de datos a efectos estadísticos, se encuentra amparado por la siguiente normativa:

1) El artículo 25 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, sobre el tratamiento de datos en el ámbito de la función estadística pública.

2) El artículo 6.1 e) del Reglamento (UE) 2016/679 en los casos en que la estadística para la que se requiera la información venga exigida por

egiteko exijitzen badu edo legeetan aurreikusitako estatistika-programazioko tresnen barruan badago.

3) Funtzio Estatistiko Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legearen 6. artikulua, honako hau ezartzen duena: «Estatuko eta autonomia-erkidegoetako estatistika-zerbitzuek unean-unean egokienak izan daitezkeen lankidetzak-formulak ezarriko dituzte, eskura dauden informazioak ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta datuak biltzeko eragiketak edo beste edozein eragiketa behar ez denean bikoiztea saihesteko». Halaber, 11.2 artikulua, zeinen arabera, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 9. eta 10. artikuluek jasotzen dituzten datuak ukituek beren borondatez emango dituzte, eta, ondorioz, haien berariazko adostasuna dagoenean baino ezingo dira bildu. Legearen 13. artikulua, sekretu estatistikoari buruzkoa. Legearen 15. artikulua, honako hau ezartzen duena: «sekretu estatistikoak babesten dituen datu pertsonalak, ondorio estatistikoetarako, honako baldintza hauek betetzen badira baino ezin izango dira jakinarazi administrazio eta erakunde publikoen artean, eta horiek zaintzen dituen zerbitzu edo organoak egiaztatutako beharko ditu:

a) Datuak jasotzen dituzten zerbitzuek batez ere eginkizun estatistikoak betetzea, eta datuak laga aurretik estatistiko gisa araututa egotea.

b) Datuen xedea izatea, hain zuzen ere, zerbitzu horiei agindu zaizkien estatistikak egitea.

c) Informazioaren hartzailerik diren zerbitzuek sekretu estatistikoa gordetzeko behar diren baliabideak izatea.»

4) Estatistika-eginkizun publikoa betetzeko organismo eskudunek (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 15.etik 22. artikulura bitartean ezarritako eskubideak baliatzeko asmoz ukituek egin dituzten eskabideei uko egin ahalko diete, Estatuko legeriak edo autonomikoak aurreikusitako sekretu estatistikoaren bermeen babespeko datuak direnean.

Ondorioz, juridikoki bidezkoa denez informazioa elkarri trukatzeko sistema egonkor bat ezartzea, eta sistema horrek, hala badagokio, bidea emango duenez beste aldearen datu-baseetara zuzeneko sarbidea izateko dagozkion konexio informatikoen bidez, eta jakinda zer garrantzitsua den informazio hori behar bezala erabiltzea,

una norma de Derecho de la Unión Europea o se encuentre incluida en los instrumentos de programación estadística legalmente previstos.

3) El artículo 6 de la Ley 12/1989, de la Función Estadística Pública, de 9 de mayo según el cual “los servicios estadísticos estatales y autonómicos establecerán las fórmulas de cooperación que en cada momento puedan resultar más idóneas para aprovechar al máximo las informaciones disponibles y evitar la duplicación innecesaria de las operaciones de recogida de datos o cualesquiera otras”. También su artículo 11.2, según el cual serán de aportación estrictamente voluntaria y, en consecuencia, solo podrán recogerse previo consentimiento expreso de los afectados los datos a los que se refieren los artículos 9 y 10 del Reglamento (UE) 2016/679. Asimismo, el artículo 13 que se refiere al secreto estadístico. También su artículo 15 que establece que “la comunicación a efectos estadísticos entre las Administraciones y organismos públicos de los datos personales protegidos por el secreto estadístico sólo será posible si se dan los siguientes requisitos, que habrán de ser comprobados por el servicio u órgano que los tenga en custodia:

a) Que los servicios que reciban los datos desarrollen funciones fundamentalmente estadísticas y hayan sido regulados como tales antes de que los datos sean cedidos.

b) Que el destino de los datos sea precisamente la elaboración de las estadísticas que dichos servicios tengan encomendadas.

c) Que los servicios destinatarios de la información dispongan de los medios necesarios para preservar el secreto estadístico.”

4) Los organismos competentes para el ejercicio de la función estadística pública podrán denegar las solicitudes de ejercicio por los afectados de los derechos establecidos en los artículos 15 a 22 del Reglamento (UE) 2016/679 cuando los datos se encuentren amparados por las garantías del secreto estadístico previstas en la legislación estatal o autonómica.

En consecuencia, siendo jurídicamente procedente el establecimiento de un sistema estable de intercambio recíproco de información que, en su caso, incluso permita el acceso directo a las bases de datos de la otra parte a través de las pertinentes conexiones informáticas y, estando persuadidas de la importancia de una correcta

bermatuta beti bai informazio horren izaera sekretua bai herritarren intimitaterako eskubidea, bi aldeek hitzarmen hau sinatzea adosten dute. Honako klausula hauen arabera arautuko da:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da lankidetzaz-esparru orokor bat ezartzea Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean, informazio-trukea eta datu-baseetarako elkarrekiko sarbidea arautzeko baldintzei eta prozedurei dagokienez, hirugarren klausulan zehaztutako edukiak beteta eta berariaz zainduta klausula horretan aipatzen diren pertsonen eskubideak.

Bigarrena.– Hitzarmenaren xede den informazio-trukearen helburua.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginaren 77.1.d) artikuluan xedatutakoaren babesean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik datorren informazioa lagatzearen helburua izango da: beste edozein administrazio publikorekin lankidetzan aritzea funts publikoen konturako laguntzak edo dirulaguntzak — Europar Batasunekoak barne — lortzeko edo jasotzeko iruzurraren aurka borrokatzeko, Gizarte Segurantzaren sistemako araubideetan bateraezinak diren prestazioak lortzeko edo jasotzeko, eta, oro har, Gizarte Segurantzaren Administrazioak lortutako datuak garrantzitsuak diren eta haiei legez edo erregelamenduz esleitzen zaizkien eginkizunak betetzeko.

